

Mitxel Lakuntzaren hitzaldia. BILBO

Zorionak!
Zorionak grebalari, militante eta gaurko greba posiblea egin duzuen organizazio guztiei.

Zorionak, konpromiso militante honek bizirik mantentzen duelako gizarte justuago baterako aukera!!

1.- Politika instituzionalaren porrota

Gaur greba egin dugu arazo politiko bat konpontzeko.

Arazo sozial bat dago bai, etxebizitza arazo nagusia bilakatu delako, baina arazo sozial bat daukagu arazo politiko bat dugulako.

Herri honetan ere, Gobernuek, Aldundiek eta Udaletxeek neurri apalagoan bada ere, hartu dituzten neurri horien ondorioz gaude gauden bezala.

Argi diogu, politika instituzionalaren porrotaren aurrean gaude.

Ez dira espekulazioarekin bukatzeko neurririk matxan jarri, ez da inbertsio publiko nahikoa bideratu.

Zenbat da da hurrengo urterako aurrekintuetatik etxebizitzara bideratuko dena? Aurrekontuen %2,8. Hutsaren hurrengoa. Are okerrago Nafarroan %1,6.

Politika horiek normala izan behar ez lukeena normalizatzen saiatu dira. Zertarako?

Etxebitizen prezioen gorakadak normaltzat har ditzagun, abusuzko alokairuak, etxe turistikoen irekierak edo milaka etxe hutsik egotea milaka lagun etxebizitza eskuratzerik ez dutenean.

Ez da normala ez. Guzti hau egiten duten politika baten ondorio da.

Toda la estructura institucional de este país: Desde los gobiernos de Gasteiz e Iruña pasando por diputaciones y ayuntamientos ha fracasado en la tarea de garantizar el acceso a la vivienda de miles de personas en este país. Ni se han tomado medidas contra la especulación, ni ha aumentado la inversión para aumentar el parque de viviendas protegidas.

2.-Enfrentarse al poder económico

Las instituciones vascas tienen competencias en vivienda que no están utilizando.

¿Por qué? Porque para tomar medidas politicas para mejorar la vida de la gente hay que enfrentarse al poder ecónomico a los bancos, constructoras y rentistas y eso es algo que por desgracia en la politica vasca no pasa.

Hori da aldatu nahi duguna. Horregatik, hau ere, greba politiko bat da. Egungo politikak aldatu nahi ditugulako eta horretarako printzipio argi batetik abiatu behar da:

Etxebizitzaren arazoa konpontzeko etxebizitzarekin negozioa egiten dutenen interesak ezbaian jarri behar dira.

Neurri zehatzak behar dira. Horregatik greba honetara hiru aldarrikapen nagusiekin gatoz; espekulatzaileen espropiazioa, espekulazioaren debekua eta baliabide publikoak handitzea etxebizitza politika langile klasearen mesedetan jartzea.

3.-Grebaren indarra eta balioa

Aurtengo bigarren greba orokorra da hau. Gutxieneko soldata propio bat lortzeko martxoaren 17an bete genituen kaleak.

Bi greba huek langile klasearen artean pobrezia sortzen duten bi arrazoi nagusiak dira. Soldata baxuek eta etxebizitzaren prezioen gorakada.

Estamos ante un saqueo organizado. Mientras las empresas obtienen récords históricos de beneficios, la patronal apuesta por seguir manteniendo salarios precarios, y los bancos, empresas y rentistas se llevan lo que queda del salario con hipotecas y alquileres cada vez más altos.

Horren aurkako erantzun bat eta proposamena da gaurko greba hau.

Grebek duten indar eraldatzailean sinesten dugu, milaka langileen haserrea bideratzeko aukera ematen digulako, langile klaseraren atxikimendua handitzeko aukera ematen digulako eta batez ere aldarriak gauzatzeko aukera irekitzen digulako. Horregatik...

- Greba egin dugu etxebizitza eskubidea bilakatzeko
- Greba egin dugu etxebitzaren auzia errotik aldatu nahi dugulako
- Greba egin dugu, erakundee guztiek orain arte egin ez dutena egin dezaten!

Gora greba orokorrak!

4.-Etxebizitza militanteei aitortza

Etxegabetzeak dira etxebitza auziak duen errealitaterik gordinena. Egun batetik bestera familia oso bat kalean uzten duena.

Kapitalismoaren krudeltasunaren aurpegi horren aurrean, euren gorputzekin etxegabetze bakoitza geldiarazteko elkartasun harresi bat altxatzen duten ehundaka gazteen lan militantea aitortu nahi dugu gaurkoan.

Elkartasun horrekin, borroka horren bitartez sendotzen da herri honetako langile klasearen duintasuna eta itxaropena.

Gure aitortza eta besarkada estuena etxegabetzeak gelditzen saiatzen zareten militante eta organizazio guztiei!!
Gora zuek!

5.- El mandato de esta huelga

Hoy damos un salto importante pero a partir de mañana seguimos teniendo una tarea, una tarea que está en nuestra manos, conseguir que la lucha por el derecho a la vivienda siga mañana más viva y fuerte que hoy.

Para eso tenemos que seguir organizándonos, seguir trabajando conjuntamente un espacio de contrapoder autónomo para que la presión sobre los gobiernos e instituciones sea mañana más grande que hoy.

Presionar hasta que la vivienda deje de ser un negocio y se convierta en un derecho.

Lan munduan gertatzen den bezala, lorpenak, garaipenak, borrokatzeko daukagun gaitasunarekin lotuta daude.

Beraz, bihar ere antolakuntza, elkarlana eta mobilizazioa etxebizitza eskubidea bermatu arte!

Gora euskal Herria solidarioa!
Gora munduko langileria!